



# ARRAZTALO ELKARTEA

Urteko txostena 2017 eta 2018ko lan ildoak

# AURKIBIDEA

<b>1</b>	<b>SARRERA</b>	<b>1</b>
<b>2</b>	<b>2017 URTEKO EKINTZEN BALORAZIOA</b>	<b>1</b>
<b>2.1</b>	<b>LAN ETA GIZARTE INTEGRAZIOA BARATZETAN</b>	<b>1</b>
2.1.1	HELBURU OROKORRAK	1
2.1.2	2017RAKO LAN ILDOAK	1
2.1.3	2017KO IBILBIDEA	2
2.1.4	2018RAKO LAN ILDOAK	2
<b>2.2</b>	<b>ESKUALDEKO OSASUN MENTALEKO MAHAIA</b>	<b>3</b>
2.2.1	HELBURU OROKORRAK	3
2.2.2	2017KO IBILBIDEA	3
2.2.3	2018RAKO LAN ILDOAK ETA HELBURUAK	4
<b>2.3</b>	<b>BARATZAK ETA KONTSUMO TALDEA</b>	<b>4</b>
2.3.1	HELBURU OROKORRAK	4
2.3.2	2017RAKO LAN ILDOAK	4
2.3.3	2017KO IBILBIDEA	4
2.3.4	2018RAKO LAN ILDOAK	5
<b>2.4</b>	<b>IKASTETXEAK ETA BARATZETARA BISITAK</b>	<b>6</b>
2.4.1	HELBURU OROKORRAK	6
2.4.2	2017RAKO LAN ILDOAK	6
2.4.3	2017KO IBILBIDEA	6
2.4.4	2018RAKO LAN ILDOAK	6
<b>2.5</b>	<b>MATERIAL DIDAKTIKOA ETA TAILER IREKIAK</b>	<b>6</b>
2.5.1	HELBURU OROKORRAK	6
2.5.2	2017RAKO LAN ILDOAK	7
2.5.3	2017KO IBILBIDEA	7
2.5.4	2018RAKO LAN ILDOAK	8
<b>2.6</b>	<b>ALDURAREKIN ELKARLANA</b>	<b>8</b>
2.6.1	HELBURU OROKORRAK	8
2.6.2	2017RAKO LAN ILDOAK	8
2.6.3	2017KO IBILBIDEA	8
2.6.4	2018RAKO LAN ILDOAK	8

<b>2.7 ENPLEGU ZENTRO BEREZIA</b>	<b>9</b>
2.7.1 HELBURU OROKORRAK	9
2.7.2 2017RAKO LAN ILDOAK	9
2.7.3 2017KO IBILBIDEA	9
2.7.4 2018RAKO LAN ILDOAK	10
<b>2.8 FORU ALDUNDIAREKIN ELKARLANA</b>	<b>10</b>
2.8.1 HELBURU OROKORRAK	10
2.8.2 2017RAKO LAN ILDOAK	10
2.8.3 2017KO IBILBIDEA	10
2.8.4 2018RAKO LAN ILDOAK	11
<b>2.9 AZTERKETA SOZIOLOGIKOA</b>	<b>11</b>
2.9.1 HELBURU OROKORRAK	11
2.9.2 2017RAKO LAN ILDOAK	11
2.9.3 2017KO IBILBIDEA	11
2.9.4 2018RAKO LAN ILDOAK	12
<b>3 DIRU-LAGUNTZAK</b>	<b>12</b>
<b>4 DIRU-KONTUAK</b>	<b>14</b>
4.1 BALANTZEA	14
4.2 DIRU-SARRERAK	14
4.3 GASTUAK	15

# 1 SARRERA

Txosten honetan Arraztalo Elkarteak 2017an egin dituen ekintzen laburpena biltzen da. Urte hasierako helburuak, egindako lanak eta hurrengo urterako lan ildoak zehazten dira. Gainera, diru-kontuen azalpen zehatza ematen da.

## 2 2017 URTEKO EKINTZEN BALORAZIOA

### 2.1 Lan eta gizarte integrazioa baratzetan

#### 2.1.1 Helburu orokorrak

- Helburu nagusia, Oiartzungo gaixo psikikoen lan eta gizarte integrazioa lortzea da.
- Lan integrazioa bultzatzeko nekazaritza ekologikoan lanpostuak sortzea.
- Gaixotasuna duten pertsonekin, senideekin, gizarte zerbitzuekin eta osasun arretako profesionalekin euren egoera egonkortzen eta hobetzen laguntzea.
- Gaixotasun psikiko duten pertsonen eta herritarren arteko harremanak bultzatzea eta sendotzea.

#### 2.1.2 2017rako lan ildoak

- Langile berriaren egokitzapena bukatzea.
- Langileen lanaren jarraipena egiteko dinamika martxan jartzea.
- Langileei laguntza psikologikoa eskaintzeko aukerak aztertzea. Ekintza honen helburua, langileen errekupeazioan ikusten diren hutsuneak betetzea da. Lanak berak onurak dituen arren, oraindik ere sozializazioan, harremanetan eta adierazpenean zailtasunak dituztela nabaria da. Horregatik, dagoeneko martxan dagoen lan dinamika baliatuz, terapia moduko bat jarri nahi da martxan, baina lanean txertatua. Ez gaude ziur lan esparrutik kanpo terapia egiteak nahi ditugun emaitzak lortuko dituenik. Ondorioz, bi lan nagusi ditugu:
  - Laguntza psikologikoa emateko metodologia zehaztea. Horretarako agian bertatik bertara profesional batek baratzetan egiten den lana ikusi beharko luke.
  - Laguntza psikologikoa emateko finantziazioa aurkitzea.
- Enpresa arruntetan gaixotasun psikikoa duten pertsonak kontratatuzeko kanpaina egitea. Oarsoaldea Garapen Agentziarekin enpresetara Arraztalo eta Aldura Elkarteak hurbiltzeko plangintza egitea.

### 2.1.3 2017ko ibilbidea

2017an Arraztalok lantalde egonkorra izan du, bost pertsonaz osatua. 2016an lantaldean sartu zen langile berriaren egokitzapena bukatu da, emaitza ezin hobearekin. Gainera, langileek lortutako emaitzak ikusirik, lan kontratu finkoak egin zaizkie.

Langileen bilakaeraren jarraipena egiteko, Oarsoaldea Garapen Agentziako teknikari batek aldizkako bisitak egiten ditu. Bisita horietan, lantalde osoarekin lanaren martxa aztertzen du. Etorkizuneko helburua, dinamika hau egonkortu eta langile bakoitzarekin jarraipen horretan landu beharrekoa zehaztea izango litzateke.

Bestalde, azkeneko urtetan langileei laguntza psikologikoa edo beraien gaitasunak garatzeko laguntza ematea beharrezkoa dela ikusi da. Helburua, barazetan bertan behaketa egin eta bakoitzaren gaitasunak garatu eta lan dinamika hobetzeko laguntza ematea litzateke. Saiakera ugari egin dira "terapia" edo dinamika berri baten metodologia zehaztu nahian. Horretarako sektoreko profesionalengana jo dugu, baina ez dugu Arraztaloren beharretara egokitutako aukerarik aurkitu. Ez dugu ohiko terapia bilatzen. Barazetan bertan, behaketa eginez, ohitura berriak sortuko dituen metodologia baizik. Metodologia hori diseinatzeko laguntza eske EHUko Gizarte Hezkuntzako sailera jo dugu. Bertako arduradunarekin bilera batean gure problematika aurkeztu genuen eta azterketa bat martxan jarri dute elkarlanerako formulak bilatzeko. Erronka interesgarria dela ikusten dute, baina aurrera eramateko modua aurkitu behar dugu. Hau 2018rako helburua izango da. Elkarlanari esker, Arraztalok elkarlearen Hezkuntza Proiektua garatu ahal izango luke, lan integrazioa eta gaixotasun psikikoa duten pertsonen garapena uztartuko lukeena.

Azkenik, 2017rako helburuetan, enpresa arruntetara hurbildu behar genuela zehaztu zen. Horretarako Oarsoaldearekin elkarlana planteatu zen, plangintza bat egiteko. Honen inguruan ez da ezer landu.

### 2.1.4 2018rako lan ildoak

Aurretik egin den baloraziotik honako lan ildoak ditugu 2018rako:

- Langileen bilakaeraren jarraipena egingo duen egitasmoa egonkortzea. Beharrezkoa ikusten dugu Arraztalotik kanpo dagoen norbaitek, eta lan integrazioaren inguruan esperientzia duen norbaitek, gainbegiraketa egitea. Horretarako, Oarsoaldeako teknikariek plangintza egin beharko dugu. Senideen parte hartzea ere interesgarria litzateke.
- Langileei beraien gaitasunak garatzen lagunduko dien dinamika diseinatzea. EHUrekin elkarlana bultzatu Arraztaloren Hezkuntza Proiektua diseinatu eta metodologia bat zehazteko. Langileen artean gaixotasun psikikokoak utzi dituen

ondorioak gainditzeko tresnak garatzea da helburua. Komunikazioan, enpatian eta norberaren kontzientzian dituzten hutsuneak betetzeko laguntza antolatu nahi da.

- Enpresa arruntetara hurbilketa. Enpresetan gaixotasun psikikoa duten pertsonen egoera azaltzea beharrezkoa dela uste dugu. Horretarako kanpaina bat egin beharko litzateke, baina hau, aurrerago azalduko den Oarsoaldeako Osasun Mentaleko mahaiaren helburuetako bat izan daiteke.

Helburu hauez gain, Arraztalo Elkartearen helburu nagusia, lan integrazioa hobetzeko programa egonkorra sortzea da. Programa hori pertsona batzuentzat aldi baterako irtenbidea izango da, enpresa arruntetara pasa aurretik. Beste batzuentzat berriz, beraien gaixotasuna kontuan hartuz, behin betiko lantokia izan daiteke. Dena den, gaur egun, Arraztalo Elkartean ez dugu baliabide nahikorik lan integrazioko ibilbide osoa gauzatzeko. Hori lortzeko ezinbesteko tresna dugu Enplegu Zentro Berezia, eta egitasmo honek ekarriko du, lan integrazioko ibilbide osoa martxan jartzea.

## 2.2 Eskualdeko Osasun Mentaleko mahaia

### 2.2.1 Helburu orokorrak

- Buru-osasunaren inguruan lanean ari garen eragile guztien bilgune izango den mahai edo kontseilua sortzea.
- Gaixotasun psikikoa duten pertsonen arretan dauden hutsuneak identifikatu eta ekintzen plangintza egitea.

### 2.2.2 2017ko ibilbidea

Lan ildo hau 2017an zehar sortu da, 2016an egindako tailer irekien ondorioetatik. Tailerretan egindako hausnarketan azpimarratu zen, gaixotasun psikiko duten pertsonen arretan eragile ugarik parte hartzen dugula. Bakoitzak bere arloa lantzen du, baina senideok argi dugu, pertsona hauen sendatzea lortzeko, elkarlana ezinbestekoa dela.

Eragileak elkar ezagutzeko eta elkarlana bultzatzeko tresna, eskualdeko Osasun Mentaleko mahaia izan daiteke. Mahai edo kontseilu honen helburua, gaixotasuna dutenen arretan parte hartzen dugun eragileen elkarlana bultzatzea litzateke. Bertan, besteak beste, erakundeak, senideak, gaixotasuna dutenak eta elkarteak egongo ginateke. Eskualdean dagoeneko badagoen Euskara batzordearen gisara funtzionatuko luke, gaixotasun psikikoaren inguruko sentsibilizazio kanpainak eta egitasmoak bultzatuz. Arraztalo eta Aldura Elkarteak egiten ari garen azterketa soziologikoa ere, batzorde horren aztergai izan daiteke.

Era informalean bada ere, 2017an erakunde ezberdinei mahaiaren proposamena egin zaie.

### 2.2.3 2018rako lan ildoak eta helburuak

- Eskualdeko Osasun Mentaleko mahaiaren proposamen zehatza idaztea.
- Proposamena partekatzea eragile guztiekin.
- Mahaia sortzea.

## 2.3 Baratzak eta kontsumo taldea

### 2.3.1 Helburu orokorrak

- Bertakoak, ekologikoak eta sasoiari-sasoikoak diren barazkiak eta sagardoa merkaturatzea.
- Gaixotasun psikiko duten pertsonen gizarte integrazioan lagunduko duen herritar talde baten konprometua lortzea.
- Inguruko ekoizleak kontsumo taldera erakartzea.

### 2.3.2 2017rako lan ildoak

- Ziurtagiri Ekologikoa lortzeko prozesua bukatu eta publikoan erabiltzen hastea.
- Makutsoko baratzak martxan jartzen bukatzea.
- Produktuak merkaturatzeko bide berriak aztertzea: ikastetxeetako jangelak, Labore, eragileak eta festak, merkataritza txikia.
- Hazi eta landare propioak lortzeko prozesua hobetzea.

### 2.3.3 2017ko ibilbidea

2017an Arraztalok lau baratza (19000 m<sup>2</sup>) eta bi sagasti (12000 m<sup>2</sup>) kudeatu ditu. 2016an Makutsoko baratza martxan jarri ondoren, lursail hori guztiz aprobetxatzen ari gara. Gainera, inbertsioak egin dira, batez ere Makutsoko baratzean:

- 380 m<sup>2</sup>-ko negutegia jarri da
- Negutegi txiki desmuntagarriak erabiltzen hasi gara, neguan barazkiak babesteko.

Makineria berria erosi da (belarra mozteko makina), erakunde ezberdinetatik lortutako diru-laguntzei esker.

Kontsumo taldeari dagokionean, pasa den urteko alderantzizko bilakaera izan dugu. 2016an taldea 35 pertsonatik 40ra handitu bazen, 2017an berriz ere 35 kideetan gaude. Batzuk antolatzekeo zailtasunagatik eman dute baja, saskia astean behin jasota, etxean antolatu egin behar baita barazkien kontsumoa. Beste batzuk berriz, beste alternatiba batzuen alde egingo dutela aipatu digute, adibidez Laboreren bazkide eginez. Aurrerago aipatuko den moduan, kontsumo taldean izan dugun diru sarrera jaitsiera, beste bezero batzuei egindako

salmentekin orekatu dugu, hala nola, Laboreri berari saldutako barazkiekin eta Haurtzaro Ikastolako jantokian saldutakoekin.

Ziurtagiri Ekologikoa lortu genuen 2016an hiru baratzatarako eta hauek, etengabeko azterketa prozesuan daude, ekoizpena ekologikoa dela ziurtatzeko. Makutsoko lursailaren kasuan, bilakaera prozesuan dago besteek hasieran egin zuten moduan.

2017an gure hazi propioak lortzeko egitasmoa martxan dago eta ahal den heinean, barazkiak gure hazietatik produzitzen ditugu. Honek abantaila nagusi bat du, haziak erosi behar ez izatea. Hala ere, ENEEK erakundeak gainbegiratzeko duen ekoizpen ekologikoaren prozesuan, ez dago finkatuta hazi propioen jarraipena nola egin behar den.

2017rako helburuetako bat produktuak merkaturatzeko bide berrien azterketa egitea zen. Honen inguruan emaitza nagusi hauek lortu dira:

- Laboren gure produktuak saltzen hasi gara.
- Haurtzaro Ikastolaren hornitzaile izaten hasi gara. Ikastolako jantokiko arduradunek prestutasuna erakutsi dute, eta Arraztalo kontuan hartzen dute. Behar duten barazki kopuru osoa hornitzeko ez gara gai izango, baina antolaketa egokiarekin produktu zehatzak saltzeko gai izango gara, hala nola, porruak edo kalabaza.
- Festak antolatzen dituzten eragile ezberdinen artean gure eskaintza gero eta ezagunagoa da. 2017an Xanistebanetan eta Gurutzeko festetan hornitzaile izan gara.

Salmenta bide berri hauekin, kontsumo taldean izan dugun jaitsiera orekatu da.

#### 2.3.4 2018rako lan ildoak

- Produkzio ekologikoa hobetzen jarraitzea. Ekologikoak dituen desabantailak gainditzea izango da orain helburu nagusia. Hazi eta landareen garestitzeari aurre egiteko, gure hazi propioak lantzen jarraituko dugu. Makutsoko lursailaren bilakaera prozesua ere bukatu beharko dugu.
- Kontsumo taldera jende berria erakartzeko neurriak aztertu. Bajeen arrazoiak aztertu eta horien inguruan hobetzeko zer egin dezakegun zehaztu eta gauzatu. Horretarako, epe laburrean, baja eman dutenei eta taldean daudenei inkestak pasako zaizkie.
- Merkaturatze bide berriak egonkortzea. Laboreren hornitzaile izaten jarraitzea helburu bat izango da. Haurtzaro Ikastolako jantokiarekin elkarlanean ere produkzioaren plangintza egin dezakegu, beraien beharretara egokitzeko. Honek ezinbestean elkarlana eskatuko du.
- Baratzen egoera hobetzeko inbertsioak egiten jarraitzea. Batzuk diru-laguntzen bidez egin beharko dira, beste batzuk, auzolanaren bidez.



## 2.4 Ikastetxeak eta baratzetara bisitak

### 2.4.1 Helburu orokorrak

- Herriko haurren sentsibilizazioa lortzea, buruko gaixotasunen eta buruko osasunari dagokionean.
- Arraztalo Elkartearen ekintzen berri ematea, baratzetan egiten den lana laburbilduz.
- Herriko haurrak nekazaritzara hurbiltzea.

### 2.4.2 2017rako lan ildoak

- 2016an ez zen lortu bisitak kontsumo taldearekin lotzea. Interesgarria litzateke baratzetako lana ezagutzeaz gain, ikasleek kontsumo taldea ere ezagutzea.
- Sentsibilizazioa ikasgeletara eramatea, nekazaritzaz gain gurea proiektu sozial bat dela ikusteko. Horretarako unitate didaktikoaren lanketarekin lotu beharko ditugu bisitak.

### 2.4.3 2017ko ibilbidea

Ikastetxeetatik bisitak jasotzen jarraitu dugu urtero moduan. Ez da aldaketarik izan eta ikasleek kontsumo taldea ezagutu dezaten ez dugu lanketa berezirik egin.

Ez dakigu zenbateraino ezagutzen duten ikasleek Arraztalok lan integrazioan egiten duen lana.

### 2.4.4 2018rako lan ildoak

- Bisitak gaixotasun psikikoa duten pertsonen errealitatea ezagutarazteko erabili behar ditugu. Egia da Arraztaloren marka nekazaritzarekin lotzen dutela askok, baina alderdi soziala ere azaldu behar dugu. Honekin lotuta, dagoeneko ditugun bisiten irakasleekin ikastetxeetan egiten duten lanketa aztertzea izango da helburua, Arraztaloren inguruan ematen dituzten azalpenak zein diren jakiteko.
- Baratzetako bisitak kontsumo taldearekin lotzeko, ikastetxeei bisiten ondoren oharra banatzeko aukera aztertuko dugu.

## 2.5 Material didaktikoa eta tailer irekiak

### 2.5.1 Helburu orokorrak

2017an bi egitasmoak uztartu ditugu, sentsibilizazio ekintza bakarra sortuz. Hasiera batean, material didaktikoaren egitasmoaren helburuak honakoak ziren:

- Buruko Osasunari eta gaixotasun psikikoei buruzko oinarrizko ezagutzak ikastetxeetan zabaltzea.

- Irakasle eta gurasoei hurrekin buruko osasuna lantzeko euskarri bat ematea.
- Barazetako bisitei jarraipen bat ematea ikaste programan buruko osasunari buruzko ezagutzak txertatuz.

Tailer irekienak berriz hauek:

- Herritarrak buruko osasunari eta gaixotasun psikikoei buruz sentsibilizatzea.
- Buruko osasunaren esparruan lan egiten duten profesionalen lana ezagutaraztea.

## 2.5.2 2017rako lan ildoak

Unitate didaktikoarentzat:

- Unitate didaktikoa gutxienez eskola batean txertatzea. Horretarako lehenik eta behin zuzendaritzarekin eta ikasketa buruekin adostasuna lortu beharko dugu metodologiari buruz. Ondoren gurasoekin ere saioak egitea aurreikusten da.
- Beste mailatarako unitate didaktikoak egokitzen hastea.
- Barazetara egiten diren bisitekin unitate didaktikoaren proiektua lotzea.

Tailer irekientzat:

- Tailer irekien ondorioak ateratzen ditugunean, hauekin hurrengo urterako sentsibilizazio ekintzak diseinatzea izango da lehenengo helburua.

## 2.5.3 2017ko ibilbidea

2017an tailer irekien eta unitate didaktikoaren egitasmoa bateratu ditugu. 2016ko tailerren egitura eta lanketa baliatuz, ikastetxeei proposamen bat egin zaie. Proposamen horretan bi ekintza egitea planteatu zaie:

- Guraso eta irakasleentzat tailer ireki bat, gaixotasun psikikoa duten pertsonen problematika azaltzeko.
- Unitate didaktikoaren aurkezpena eta lanketa martxan jartzea.

Unitate didaktikoa martxan jartzeko azkenekotan egindako ahaleginetatik ondorioztatu dugu pixkanaka landu beharreko gaia dela. Ikastetxeek proiektu eta egitasmo ugari dituzte esku artean eta ez dugu nahi gure egitasmoa beste lan bat gehiago dela pentsatzea hasieratik. Horregatik, sarrera moduan eta gaia nola dagoen ikusteko, tailer irekiak egitea proposatu dugu. 2017ko abendua bitarte, 3 tailer ireki egin ditugu, Elizalde Herri Eskolan, Orereta Ikastolan eta Oiartzunen, Ludotekako eta Kuadrilategiko hezitzaileekin.

Tailer hauen helburua gaixotasun psikikoa duten pertsonen egoera azaltzea izan da, eta hezitzaileen eta gurasoen ikuspuntutik gai honen inguruan dauden kezak eta zalantzak biltzea. Arraztaloren ikuspuntutik, tailer hauek oso emankorrak izan dira, irakasleek eta hezitzaileek problematika honekin kontaktua izan baitute. Gainera, 2016arekin alderatuz, gaixotasun psikikoa duten pertsonen senideen partaidetza txikiagoa izan da, iritzi

pluralagoak jaso ahal izan direlarik. Bereziki aipagarria izan da Kuadrilategiko eta Ludotekako begiraleekin egindako tailerra, gazteen ikuspuntua jaso ahal izan dugulako. Behin tailerrak gauzatuta, unitate didaktikoaren lanketa hasiko da ikastetxe bakoitzarekin. Ez da programa osotasunean gauzatzea eskatzen, Arraztaloren eta Alduraren laguntzarekin unitate didaktikoa aztertu eta ikastetxe bakoitzera egokitzea baizik.

#### 2.5.4 2018rako lan ildoak

- Tailer ireki bat gehiago antolatzea gutxienez.
- Unitate didaktikoa martxan jartzeko plangintza egitea ikastetxe batekin gutxienez.
- 2017an ez da ahaleginik egin unitate didaktiko berriak sortzeko, aurrekoa martxan jarri gabe baitago. 2018an ere ez da aurreikusten ezer berria sortzea.
- 2018rako sentsibilizazio ekintzak aztertzea eta diseinatzea.

## 2.6 Aldurarekin Elkarlana

### 2.6.1 Helburu orokorrak

- Gaixo psikikoen lan-integrazioa bultzatzeko lanpostuen sorrera, tokian tokiko elkarteak sustatuz, baratzak sustatuz.

### 2.6.2 2017rako lan ildoak

- Lan integrazioarako lanpostuak sortzeko aktibitatea aukeratu eta definitzea.
- Azterketa soziologikoa egitea. Gaixotasun psikikoa duten pertsonak Oarsoaldean zein egoeratan bizi diren jakiteko datuak bildu eta azterketa sakona egitea. Gizarte Zerbitzuen, Osasun Mentaleko Sarearen, Udalen, Foru Aldundiaren, gaixotasuna duten pertsonen, senideen eta Lanbideren datuak bateratu eskualdearen argazki zehatza lortzeko.

### 2.6.3 2017ko ibilbidea

2017an zehar, Arraztalo Elkarteak Aldura Elkartearekin elkarlana izan du, batez ere Enplegu Zentro Bereziaren, azterketa soziologikoaren eta sentsibilizazio kanpainaren inguruan. Azterketa soziologikoa eta sentsibilizazio kanpaina egiteko diru-laguntzak bi elkarten izenean eskatu dira, ekintzak Oarsoaldea osorako izan baitira.

### 2.6.4 2018rako lan ildoak

- Arraztaloren esperientziatik Aldura Elkarteari bere ibilbidea egiten jarraitzea.

- Oarsoaldean egin daitezkeen ekintzetan bi elkarten arteko elkarlana bultzatzea.

## 2.7 Enplegu Zentro Berezia

### 2.7.1 Helburu orokorrak

- Arraztaloren lan integrazio proiektua egonkortzeko Enplegu Zentro Berezia sortzea.
- Enplegu Zentro Bereziaren bitartez beste erakundeak inplikatzea.

### 2.7.2 2017rako lan ildoak

- Enplegu Zentro Berezia sor dadin Legebiltzarreko bidea berriz ere martxan jartzea. Hauteskundeak egin ondoren egon den geldialdia pasata, berriz ere gaia martxan jarri nahi da, behar adina mozio aurkeztuz.
- Oarsoaldearekin zentroaren plangintza egitea eta baldintza guztiak betetzeko pausoak ematen jarraitzea.

### 2.7.3 2017ko ibilbidea

2017an ere Enplegu Zentro Berezien legedia onartu gabe dago, beraz ezinezkoa da horrelako zentro bat martxan jartzea Euskal Autonomia Erkidegoan. Horren aurrean, Legebiltzarreko bidea martxan jarri genuen berriz, hauteskundeen ondoren. 2017ko otsailean EhBilduko legebiltzarreko ordezkari bati azkeneko sei urtetan egin diren eskaera, galdera eta akordioak azaldu genizkion. Egindako ibilbidea ikusirik, Gizarte Politikako Sailburuari idatziz erantzuteko galdera bat egin zioten maiatzean eta ekainean erantzuna jaso zen. Laburbilduz, azkeneko urtean jaso dugun erantzun bera jaso genuen: dekretu zirriborroa badago baina erakunde ezberdinak hori aztertzen ari dira eta ezinezkoa da legebiltzarrera noiz eramango duten esatea.

Urrian, Iñigo Urkullu Lehendakariak, EHLABEren (Enplegu Zentro Berezien elkarte) urteurreneko ekitaldi batean, 2018rako iragarri zuen Enplegu Zentro Berezien erregistroaren irekiera eta lan integraziorako legedi berria onartzea.

Azaroan, berriz ere EhBilduren bidez eta Podemosen babesarekin, legez besteko proposamena aurkeztu zen Enplegu, Gizarte Politika eta Gazteria Batzordean eztabaidatzeko. Bertan adostutakoaren arabera, 2018ko otsailean erregistroa irekitzeko zirriborroaren tramitea hasiko da.

Bien bitartean, epe laburrean (2018an) Enplegu Zentro Bereziarekin lanketa egiten hasi beharko dugula aurreikusirik, abenduan Arraztalo eta Aldurako ordezkariak, Oarsoaldea Agentziako eta lau udaletako ordezkari politikoekin bildu ginen Enplegu Zentro Bereziaren

egitasmoa aurkeztu eta denon parte hartzea eskatzeko. Argi dugu zentro honek partaide ugari izan behar dituela. Oraindik hau egiteko forma argi ez dagoen arren, senideok bakarrik zentro hau sortzea ezer aldatu ez dugunaren seinale izango litzateke. Gaixotasun psikikoa duten pertsonen arretarako, denon inplikazioa beharrezkoa da. Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzez bizi den Enplegu Zentro Berezi batek ez du hobekuntzarik ekarriko. Pertsona hauek lana izango dute, babestua, baina inguruko erakundeekin elkarlana beharrezkoa da ahalik eta arreta hoberena izan dezaten.

#### 2.7.4 2018rako lan ildoak

- Enplegu Zentro Bereziak partaide diren erakundeentzako zein helburu bete behar dituen zehaztea.
- Enplegu Zentro Bereziaren legedia atera bitarte, inguruko erakundeekin proposamena lantzen joatea.
- Enplegu Zentro Bereziaren forma juridikoa aztertzea, legelari baten laguntzaz.
- Oarsoaldea Garapen Agentziarekin plan ekonomiko-finantzieroa egitea.

### 2.8 Foru Aldundiarekin Elkarlana

#### 2.8.1 Helburu orokorrak

- Foru Aldundiarekin elkarlan egonkorra lortzea

#### 2.8.2 2017rako lan ildoak

- 2016ko azkeneko bileran aipatutako konpromezuak gauzatzeko baliabideak jartzea.
- Lan integrazioaren gaia Aldundiarekin batera lantzeko urratsak ematea.

#### 2.8.3 2017ko ibilbidea

2016ko abenduan Gizarte Politikako Sailburuarekin izandako bileratik, urteko aurrekontua betetzeko Arraztalok behar zuen adinako diru-laguntza emateko ahozko konpromezua lortu genuen. Dena den, momentu horretan ez zegoen argi zein izango zen tramitazioa egiteko modua.

Azkenean, Foru Aldunditik diru-laguntza jasotzeko Hirugarren Sektorereko Elkarteei diru-laguntzak emateko ohiko deialdi bidez egitea eskatu ziguten. Ondorioz, Gizarte Eskuhartzeko programak egiteko diru-laguntzen deialdian aurrekontua osatzeko adinako laguntza eskaera egin genuen. Laguntza hori, lan integrazioeko programarekin justifikatzeko zen. 2017ko abuztuan deialdiaren ebazpena atera zenean, eskatutako diru-laguntzaren

erdia baino gutxiago jaso genuen. Deialdi hori publikoa denez eta irizpide batzuen bidez ebazten denez, ulergarria zen nahi hainbesteko diru-laguntza ez jasotzea.

Dena den, 2017 urte osoan zehar ez dugu lortu Aldunditik egindako tramitazioaren eta emandako konpromezua ez betetzearen arrazoirik.

#### 2.8.4 2018rako lan ildoak

- Aldundiarekin elkarlana gauzatzeko kontaktua berriz ere martxan jartzea.
- Lan integrazioaren gaia Aldundiarekin batera lantzeko urratsak ematea.

## 2.9 Azterketa soziologikoa

### 2.9.1 Helburu orokorrak

Oarsoaldean gaixotasun psikikoa duten pertsonen egoera zein den jakiteko azterketa soziologikoa egitea.

### 2.9.2 2017rako lan ildoak

Azterketa soziologikoa egiteko beharra 2016ko tailer irekien ondorioz ikusi zen. 2017rako lan ildo nagusia, hori egiteko finantziazioa bilatzea izan da.

### 2.9.3 2017ko ibilbidea

2017an SIIS enpresarekin batera azterketa egiteko plangintza diseinatu eta aurrekontua egin da. Helburua ez da gaixotasun psikikoa duten pertsonen inguruko datuak biltzea, datu horien arteko harremana eta diagnostikoa egitea ere bada. Guztira proiektuak 15000€-ko aurrekontua du. Horri esker, bi diru-laguntza eskatu dira:

1. Aldundiko Gizarte Politikako Sailean, Gizarte arretaren inguruko Ikerketa eta berrikuntza proiektuak egiteko diru laguntzen deialdian eskaera aurkeztu zen. 5000€-ko diru-laguntza jaso dugu.
2. Eusko Jaurlaritzako Gizarte Politikako Sailean, Euskadin Gizarte arloan ezagutza kudeatzeko diru-laguntzen deialdia eskaera aurkeztu zen. 1600€-ko diru-laguntza jaso dugu.

Laguntza honi esker, azterketaren lehen faseak martxan jarri dira. Besteak beste:

- Bibliografiaren azterketa egin da.
- Erakundeen datuak eta estatistikak aztertu dira.
- Hasierako txosten bat egin da.

- Gaixotasuna duten pertsonekin eta sendeekin egin beharreko elkarrizketen plangintza egin da.

Proiektua bukatzeko beharrezko diru-laguntza bila eskualdeko udaletara joan gara. Hasierako kontaktua izan dugu baina ez dugu erantzunik jaso.

#### 2.9.4 2018rako lan ildoak

- Proiektua bukatzeko diru-laguntzak lortzea.
- Azterketaren orain arteko emaitzen ebaluazioa egin eta hurrengo faseak prestatu.

### 3 DIRU-LAGUNTZAK

Jarraian, Arraztalok aurten eskatu edo lortu dituen diru-laguntzen laburpena ikus daiteke:

Diru-laguntza	Kopurua	Helburua	Onartua	Oharra
Oiartzungo Udala	53000€	Lan integrazioa baratzetan	Bai	Aurreko urtean baino 8000€ gehiago jaso dira.
Kutxa Fundazioa	3000€	Lan integrazio programan laguntzeko	Bai	18000€-ko diru-laguntza eskatu zen
Banco Santander	5000€	Negutegi berria erosteko	Bai	
Caixa	2000 €	Baratzetan integrazioan laguntzeko esku-hartze psikosozialerako programa gehigarria (Inserción Social deialdia)	Ez	Ez emateko arrazoia: aurrekontu falta
Caixa	2000 €	Baratzeko materiala erosteko	Bai	Zuzeneko laguntza Oiartzungo bulegotik kudeatua
Foru Aldundia	6000 €	Baratzetako integrazio programari laguntzeko	Bai	17000€ eskatu ziren.
Foru Aldundia	5000 €	Gaixotasun psikikoari	Bai	

		buruzko azterketa soziologikoa egiteko		
Foru Aldundia	3002 €	Tailer irekiak antolatzeke	Bai	9000 € eskatu ziren
Eusko Jaurlaritza	9300 €	Kontratu finkoak egiteagatik Lanbideren laguntza	Bai	
Eusko Jaurlaritza	1000 €	Zigilu Ekologikoaren programan parte hartzeagatik	Bai	
Eusko Jaurlaritza	1663€	Gaixotasun psikikoari buruzko azterketa soziologikoa egiteko	Bai	3250€ eskatu ziren
Foru Aldundia	3.728,17 €	Ekoizpen ekologikoan egoteagatik laguntza	Bai	

Diru-laguntzen inguruan, honako hausnarketa egiten dugu 2017ari buruz:

- 2017 urtea ona izan da diru-laguntzei dagokionean. Bereziki hiru taldetan banatu daitezke diru-laguntzak: lan integratzaileko, materiala erosteko eta sentsibilizazio ekintzak egiteko.
- Zailtasun handiena lan integratzaileko diru-laguntzak lortzen dugu. Aurrekontua betetzeko falta den zatia lan integratzaileko programarentzat ezinbestekoa da. Aurten Oiarzungo Udalaren eta Foru Aldundiaren artean lortutako diru-laguntzekin aurrekontua betetzea lortu da. Dena den, urtero hutsune berdina dugu eta ezin dugu urtero formula ezberdinak aurkitzen ibili. Gainera aurten diru-laguntza berezia jaso dugu Eusko Jaurlaritzatik langileak finko egiteagatik, baina hori ezingo da hurrengo urtean eskatu. Ondorioz, aurrekontua betetzeko diru-laguntza berriak bilatu beharko ditugu, Enplegu Zentro Berezia martxan ez dagoen bitartean.
- Materiala erosteko eta sentsibilizazio ekintzak egiteko diru-laguntzei dagokionean, lortzeko errazagoak direla esan dezakegu, proiektu edo egitasmo zehatzak direlako. Gainera, erakundeek errazago ematen dituzte laguntzak gauza materialak erosteko.



## 4 DIRU-KONTUAK

### 4.1 Balantzea

2017 SARRERAK	
<b>Salmentak</b>	
Kontsumo Taldea	22.235,00 €
Merkataritza	1.487,99 €
<b>Diru laguntzak</b>	
Udala	53.000,00 €
Foru Aldundia	17.730,17 €
Eusko Jaurlaritza	11.553,86 €
Banketxeak	9.250,00 €
<b>Maileguak</b>	
Maileguak	4.000,00 €
Beste diru-sarrerak	113,88 €
<b>Guztira</b>	<b>119.370,90 €</b>

2017 GASTUAK	
<b>Langileria</b>	
Soldatak	55.021,42 €
Gizarte Segurantza	22.945,09 €
IRPF	4.090,76 €
<b>Funtzionamendu gastuak</b>	
Baratzak	9.848,17 €
Aseguruak	1.447,57 €
Ura	707,35 €
Argindarra	82,21 €
Asesoria	1.485,88 €
Hondakinak	160,10 €
Komisioak banketxeak	62,50 €
Beste	187,19 €
<b>Inbertsioak</b>	
Baratzetan inbertsioak	5.253,82 €
<b>Maileguak</b>	
Maileguen itzulketa	4.000,00 €
<b>Sentsibilizazio ekintzak</b>	
Sentsibilizazioa	8.000,00 €
<b>Guztira</b>	<b>113.292,06 €</b>

BALANTZEA	
2017-01-01	5.395,16 €
Balantzea	6.078,84 €
2017-12-31	11.474,00 €

### 4.2 Diru-sarrerak

2017an diru-sarrera iturri nagusiak bi izan dira: salmentak eta diru-laguntzak.

Salmentei dagokienean, ekoizpenaren gehiengoa Kontsumo Taldearen bitartez saldu da. Kideen jaitsiera bat egon den arren, merkataritza txikian egindako salmentekin urteko salmenten helburua mantentzea lortu da.

Produktuen salmentarako beste bidea merkataritza txikiarena izan da. Aurten hasi gara inguruko merkatariei barazkiak saltzen, besteak beste, Laboreri. Gainera, salmenta hauetan sartu ditugu, Hautzaro Ikastolaren jantokiari saldutako barazkiak ere.

Diru-laguntzei dagokionean, guztira 91.534,03€ jaso dira. 3. atalean zehaztu dira laguntzen kopurua eta helburuak.

Azkenik, urte hasieran elkarteko kide batek 4000€-ko mailegu bat egin zuen, diru-laguntzak jaso bitarte lehenengo hiruhilekoko gastuei aurre egin ahal izateko.

### 4.3 Gastuak

Gastuetan, kopuru handiena langileria gastua izan da. Guztira, soldata, gizarte segurantzaren eta zergen artean 82.057,27€ ordaindu dira. 2017an bost pertsonako lantalde iraunkorra izan dugu, gaixotasun psikikoa duten lau pertsonen eta arduradun batez osatua. Eusko Jaurlaritzatik (Lanbide) jasotako diru-laguntzari esker, urteko azken hiru hilabetetan beste pertsona bat gehiago kontratatu da errefortzu gisa, udaberrirako landaketak prestatzen laguntzako. Gainera, langileei kontratu finkoak egiteagatik, bai gizarte segurantzaren, baita zergetan jaitsiera arina izan da.